



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) · CIF: P3175000C
Tel: 948 76 43 75
junta@aezkoa.net
valledeaezkoa@gmail.com
www.aezkoa.org

Ariben, 2023ko ekainaren 1ean, eguerdiko ordu batean, Aezkoako Batzarre Nagusiak, bilkura arrunta egin du, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

BILDUTAKOAK

Batzarreburu jauna: Karlos Bueno Reka

Batzarrekide jaun/anderak:– Galarza Larrayoz, Maria Carmen – Merino Iriarte, Juan Esteban – Santomá Vicens, Gonzalo.

LEHENENGOA.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONETSI.

2023ko maiatzaren 9an egindako bilkuraren akta onetsi da, eragozpenik agertu ez baita.

BIGARRENA.-KULTUR OLAN ARITZEKO LANGILEAK KONTRATATZEA.

Jakinarazi da Kultur Olan informazioa emateko pertsonak kontratatzeke enplegu eskaintza egin zela, gutxietsitako kolektiboek zuzendutakoa, baina hartara ez dela inor aurkeztu; beraz, erabaki da eskaintzara aurkezteko epea ekainaren 17ra arte luzatzea eta mota guztietako kolektiboek zuzentzea.

Era berean, eskaintza bat aurkeztuko da, informatzaile gisa aritzeko pertsonak kontratatzeke eta hainbat zerbitzu betetzeko. Helburua da Aezkoako turismo bulegoan (Aribe) nahiz Arrazolako eta Kultur Olako informazio zerbitzuetan errefortzu modura aritu ahal izatea.

Turismo bulegoa uztailaren 14tik azaroaren 6ra irekitzea aurreikusita dago, hau da, beste urte batzuetan izan den denboraldi berean. Irati eta Kultur Olako informazio zerbitzuen errefortzuei dagokienez, sartzeko baldintzak aurreko urteetakoak bezala mantenduko dira; eskaintza 2023ko ekainaren 30eko 13:00ak arte egonen da zabalik eta hautatzeko proba uztailaren 5ean egingen da. Lanaldia % 100ekoa izanen da. Lan egutegian asteburu eta jaiegun batzuk sartuko dira. Soldata administrazioko D mailakoa izanen da, eta maila, lanpostu eta jaiegunetako osagarriak ordainduko dira.

Era berean, erabaki da Aribeko turismo bulegorako langileak kontratatzeke lan eskaintza bat egitea. Kontratua uztailaren 14an hasi eta azaroaren 2an bukatuko da.

HIRUGARRENA.- BATZARRE NAGUSIAREN LANPOSTUAK EGONKORTZEKO PROZESUETARAKO EPAIMAHAI IA IZENDATZEA. ONARTUTAKO PERTSONEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ONARTZEA ETA PROBEN DATA ZEHAZTEA.

Gaur-gaurkoz, egonkortze prozesuan sartutako lanpostuak hautatzeko epaimahaietan aritzeko behar adina partaide ez dira lortu. Horrenbestez, puntu hori mahai gainean uztea erabaki da, epaimahaia osatu arte, eta ez da bidezkoa onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratzea, epaimahaiak aldeztu aurretik izendatu behar baitira.

LAUGARRENA.- KUDEAKETA AGINDUA, IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIO ZERBITZUAK EMATEKO.

Garraldako idazkariak berriki erretiroa hartu zuen. Udalen batasuna eramateko ondoren hautatutako idazkariak jakinarazi zuen ez zuela lanpostua hartuko. Hori dela eta, maiatzaren 19an, Ariako eta Garraldako alkateek Aezkoako Batzarre Nagusiko idazkaria Udal batasuneko idazkari behin-behinez gaitzeko ebazpena eman zuten.

Udal eta autonomia hauteskundeak hurbil daudenez, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak xede horretarako kudeatzen dituen zerrendetan langilerik ez dagoenez, eta deialdi publiko berri bat egiteak eraman lezakeen denbora kontuan hartuta, idazkari hori gaitzea erabaki zen, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 234-3-b artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Legeak ezartzen du Idazkaritza eta Kontuhartzaitza eginkizunak foru gaikuntza nahikoa duen pertsona batek bete ahal izanen dituela, baldin eta bere zerbitzuak Nafarroako beste toki erakunde batean ematen baditu.

Gaur egun, abian da Nafarroako Idazkaritza eta Kontuhartzaitzako lanpostuak egonkortzeko prozesua, eta gehienez ere 2024ko abenduaren 31n amaitu behar da.

Azaldutakoagatik guztiagatik, Aria eta Garraldako udalek Aezkoako Batzarre Nagusiarekin kudeaketa agindurako hitzarmena sinatzea aurreikusi da, eta horren zirriborroa Osoko Bilkurara aurkeztu da.

Hitzarmenaren testua aztertu da, eta bertaratutakoek aho batez onartu dute, eta alkateari gainerako erakundeekin hitzarmena formalizatzeko ahalmena ematea erabaki dute. Honako hau da hitzarmenaren testua:

Ariako eta Garraldako Udalek Idazkaritzako Zerbitzuen batasun bat osatzen dute. Batasun horrek Idazkaritza lanpostuari dagozkion eginkizunak bete behar ditu, bai eta administrazio-laguntzari dagozkionak ere: espedienteen ohiko kudeaketako zerbitzua, kontabilitatea prestatzea, diru-bilketa likidatzea eta kontrolatzea eta bizilagunak artatzea.

Aezkoako Batzarre Nagusiak zerbitzu horiek emateko baliabideak ditu, bere langileen bidez, eta Ariako eta Garraldako udalen batasunarekin lankidetzan aritu nahi du eginkizun horietarako.

Bi Udalen Osoko Bilkurak eta Aezkoako Batzarre Nagusiak HITZARMEN hau onartu dute, eta bertako alkateei eta presidenteari ahalmena eman diete hitzarmena formalizatzeko.

Ondorioz, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren babesean, bi udalek eta Aezkoako Batzarre Nagusiak ERABAKI DUTE:

Lehenengoa.- Xedea

Ariako eta Garraldako udalek Aezkoako Batzarre Nagusiari eskatzen diote, eta horrek onetsi, Idazkaritza eta Administrazio Zerbitzua ematea (espedienteen ohiko kudeaketa, kontabilitatea prestatzea, diru-bilketa likidatzea eta kontrolatzea eta bizilagunak artatzea).

Bigarrena.- Zerbitzua emateko modua

Zerbitzu hori Aezkoako Batzarre Nagusiko idazkariak eta erakunde bereko plantilla organikoko administrariak emanen dute. Horretarako, idazkariaren ohiko lanaldiaren % 20ko dedikazioa eta administrazio langilearen % 50a beharko dira.

Hori dela eta, % 35eko osagarria ezarriko da Idazkaritzako lanpostuarentzat, "kudeaketa aginduko osagarria" deitutakoa, eta administrazio langilearen lanaldia %50 luzatuko da. Osagarria eta luzapena hitzarmen honen indarraldiari lotuta egonen dira.

Hirugarrena.- Zerbitzuaren zenbatekoa eta ordaintzeko modua

Zerbitzu horiek emateagatikoa kostua (soldata eta Gizarte Segurantzako kostuak) Aria eta Garraldako udalek hartuko dute beren gain, eta hilero ordainduko dizkiote Aezkoako Batzarre Nagusiari aurreko puntuko 2. paragrafoan deskribatutako zerbitzuen kostuari dagozkion zenbatekoak, hilean 2.318,03 euro, gutxi gorabehera.

Zenbateko hori berrikusi ahal izanen da, eta automatikoki igoko da soldata-igoeraren bat edo gizarte-kostuen igoera gertatzen bada, unean-unean aplikatzekoa den indarreko araudiaren arabera.

Laugarrena.- Idazkaritza-zerbitzuak

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean aurreikusitako eginkizunak betetzean datza. Herritarrak Ariako eta Garraldako Batasunaren Idazkaritzan aurrez aurre artatuko dira ostiraletan, goiz osoan zehar.

Bosgarrena. Administrazio Zerbitzuak

Lanpostuaren berezko eginkizunak izanen dira: telefonoa atenditzea, bizilagunak artatzea, administrazio-lanak, etab. Lanaldia astelehenetik ostiralera izanen da, 11:20tik 15:00etara.

Seigarrena.- Iraupena eta luzapena

Hitzarmen hau erakunde guztiek sinatu ondoren hasiko da indarrean, eta luzatu egingen da idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako lanpostuak egonkortzeko prozesua amaitu arte, edo Aria eta Garraldako udalek elkarrearen idazkaritzako lanpostua aldi baterako betetzea erabaki arte, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren 88 b) artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorriz; nolahi ere, arauzko prozeduraren bidez plaza behin betiko betetzen denean amaituko da.

Zazpigarrena.- Iraungitzea

Hitzarmen hau azkentzeko arrazoiak honako hauek izanen dira:

- Alderdiak ados jartzea.
- Sinatzaileetako edozeinek hitzarmen honetan bere gain hartutako betebeharrak zehatzak modu larrian ez betetzea.
- Nafarroako Foru Komunitateko Toki Mapa berrantolatzea, aldi baterako betetzeko deialdia egitea edo idazkaria lanpostuaren jabetza betetzea.

Zazpigarrena.- Izaera

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta, beraz, hitzarmena interpretatzean eta betetzean sortzen diren arazoak, azken batean, administrazioarekiko auzien auzitegi eskudunek aztertu eta ebatziko dituzte.

Hitzarmen hau Ariako eta Garraldako udalek sinatu beharko dute, indarrean jartzeko.

BOSGARRENA.- OILAGORRA EHIZATZEKO 2023-2024 DENBORALDIKO TXARTELAK ESLEITZEKO BALDINTZAK.

Batzarre Nagusiko Osoko Bilkurak erabaki du 2023-2024 denboraldirako oilagor ehizaren errentamendua iragartzea, banakako txartel sistemaren bidez. 19 txartel iragarri dira (Ehiza Antolatzeako Planean baimendutako kupo osoa 21 txartel ziren). Txartel bakoitzaren prezioa zazpiehun eurokoa da, gehi BEZA. Iragarki hori Nafarroako Aldizkari Ofizialera igorriko da, eta hogeiei egun balioduneko epea emanen da eskaerak aurkezteko, iragarkia argitaratu ondoren.

Txartelak esleitzeko, aurreko kanpainarako ezarritako puntuazio hurrenkerari jarraituko zaio. Sistema horren arabera, saldu gabeko txartelik geldituz gero, ondoren eskatzen dituztenei esleituko zaizkie, eskaria egina dagoen hurrenkerari jarraikiz. Gainerako baldintzak pasa den denboraldirako ezarritako berberak izanen dira.

SEIGARRENA.- ARRAZOLAKO AUTOKARABANEN PROIEKTUA - HARTUNE ELEKTRIKOA KONTRATATZEA.

Proiektua Pirinioetako lurralde eremuko toki-erakundeentzako dirulaguntzen barruan dago, Lurralde Garapen Iraunkorreko proiektuetan inbertitzeko, 2021., 2022. eta 2023. urteetan, eta, zehazki, 2023. urtean. Kontratuaren xedea da 20 Kv-ko lurpeko hartunearen proiektuan jasotako obrak gauzatea, bai eta Orbaizetako Arrazolako autokarabana gunerako transformazio zentroa ere, V.S. Servicios y Urbanismo-k idatzia.

Lizitazio aurrekontua, BEZik gabe, ehun eta hemeretzi mila hirurehun eta hirurogeita lau euro eta bederatzi zentimokoa da (119.364,09 €).

Obrak V.S. Servicios y Urbanismo-k idatzitako proiektuaren arabera eginen dira, proiektuaren Ingurumen eraginak ebaluatzeko ebazpenean ezarritako zehaztapenen arabera, eta, hala badagokio, esleipendunaren eskaintzaren arabera, bai eta berrikusten eta onartzen den baldintza-agirian aurreikusitako baldintzen arabera ere, akta honetan eranskin gisa jasota gelditzen direnak.

Aurreko agiri eta txostenak ikusirik, Osoko Bilkurak onetsi du 20 Kv-ko lurpeko hartune elektrikoko obrak prozedura irekiaren bidez kontratatzea eta Nafarroako lizitazio-plataformaren bidez lizitatzea. Eta Arrazolako autokarabanen gunerako eraldaketa zentroa, proiektuan ezarritakoaren arabera, e119.364,09 euroko (BEZik gabe) lizitazio aurrekontuarekin.

ZAZPIGARRENA.- AEZKOA IBARRA DIGITALIZATZEKO PROIEKTUA. OBRAK KONTRATATZEA.

Nafarroako Gobernuak proiektua finantzatzeko hitzarmena sinatu du, eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren funtsekin finantzatuko du. Hitzarmena sinatuta, bidezkoa da Aezkoa Ibarreko hainbat udalerrri zuntz optikoko instalazioetara lotzeko obrak kontratatzeko lizitazioa onartzea. Lanak AIERDI Ingeniariek idatzitako Aezkoa Ibarreko Konektibitate Zuzkiduraren Memoria Baloratua izenekoan jasota daude.

Proiektu hori Nafarroako Ekialdeko Pirinioen Ekonomia Suspertzeko Planaren barruan dago. Plan horren xedea da Pirinioetako Planaren lurralde-eremuan, ekintzailetzaren bidez, ekonomia berdea eta/edo digitala sustatuko duten lurralde-proiektu berriak – berronkarako eta ekitaterrako lurralde proiektu berriak – finantzatzea, Ministroen Kontseiluak 2021eko apirilaren 27an onartutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 23. osagaien ("Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak") eta Espainiaren berreskurapen eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren (Council Implementing Decision – CID) barruan, 2021eko uztailaren 13koa.

Pleguaren xede den kontratazioa, Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean xedatutakoaren arabera esleituko da, Europako atalasetik beherako prozedura irekiaren bidez (prozedura arrunta), eta Osoko

Bilkurak onartzen duen eta akta honi eranskin gisa eranstean zaion baldintza agiriri lotuta.

Esleipena gauzatzeko, une honetan Batzarre Nagusia izapidetzen ari den baimenak lortu beharko dira. Obrak Nafarroako Gobernuak zehazten dituen ingurumen baldintzen arabera egingen dira, eta, hala badagokio, udalek eskatzen dituztenen arabera.

Obra-kontratuaren balio zenbatetsia 248.418,47 eurokoa da - berrehun eta berrogeita zortzi mila lauhun eta hamazortzi euro eta berrogeita zazpi zentimo, BEZik gabe (300.586,35 euro, BEZa barne). Kontratu hau 2023ko aurrekontu orokor bakarreko 41401-6260002 "Aezkoa ibarreko digitalizazio proiektua" partidaren kontura finantzatzeko da.

Kontratu honek Nafarroako Gobernuaren 300.000,00 euroko dirulaguntza du, 330000 33100 7609 921130 partidaren kargura [PEP: E-21-000448-01], Pirinioen orekarako eta ekitaterako lurralde-proiektua: Aezkoako Batzarre Nagusia digitalizatzea izenekoa, eta Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako Ekonomia Suspertzeko Planaren barruan dago (EEP: E-21-000448-01), -BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANA (PRTR) –.

ZORTZIGARRENA.- BERTZE GAI BATZUK

- Txabolak

Kontuan harturik txabola bat ez dela erabiltzen eta, bere garaian, Batzarre Nagusiak horiek mantentzeko plana onetsi zuela, zeinaren eraginez okupatzeko interesatuen zerrenda osatu zela, erabaki da M. Garmendiari Mateoren txabola izenekoa erabiltzeko esleitzea, planak arautzen dituen baldintzei jarraikiz.

- Dokumentalaren grabazioa.

Jakinarazi da Azpegiko txabolan gaztagintzari buruzko dokumental bat grabatuko dela ekainean, eta, ondoren, teilatua egiteko oholezko teilak egiten ikasteko ikastaroa emanen dela.

- Aurrekontu aldaketa

Informatu da presidenteak emandako ebazpenaren bidez aurrekontu aldaketa bat egin dela. "Kreditu-transferentziak" aurrekontua gauzatzeko oinarrien 11. oinarrian zehaztutakoaren arabera: 92001-2260101- "Protokolozko eta adierazgarritzko arretak" aurrekontu-aplikazioaren hasierako gastua 800,00 eurotik 3.800,00 eurora zabaldu da, eta 92401-2270601 "Aezkoa 2030" aplikazioa 20.000,00 eurotik 17.000,00 eurora murriztu da, Kultur Olaren inaugurazio gastuei aurre egiteko, gastu arlo berari dagozkion partiden arteko transferentzia baita.

Batzarre Nagusia jakinaren gainean gelditu da.

BEDERATZIGARRENA.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez dira egin.

Eta aztertzeko gai gehiagorik agertu ez baita, bilkura amaitutzat eman da 15:00etan. Errandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta, nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

